

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Foru Gobernuak %1,1etik %1,5era igo du Nafarroako BPGren 2014ko hazkunde-aurreikuspena

*Lehen sei hilekoko datuak onak dira, batik bat industriakoak eta esportaziokoak, eta adierazten dute erkidegoa estatuko batezbestekoaren gainetik ari dela hazten*

Martes, 09 de septiembre de 2014

Nafarroako Gobernuak % 1,1etik %1,5era igo da Foru Komunitateko Barne Produktu Gordinaren (BPG) 2014ko [hazkunde-aurreikuspena](#); izan ere, lehen sei hilekoko bilakaera ona izan da, batik bat industriari eta esportazioei dagokienez.

Aurreikuspen berrien dokumentua Foru Gobernuaren gaurko bilera aurkeztu du lehen lehendakariorde eta

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoecheak.

Lehendakariordeak adierazi du BPGren balioespenak irizpide “errealista eta zuhurrekin” eguneratu dituztela. Alde horretatik, jakinarazi du egoera oraindik “zaila” bada ere datozen hilabeteetan lehen sei hilekoko hazkunde-joerari eutsiko zaiola. Dena den, azaldu du nazioarteko gatazkek eta Europako herrialdeen edo suspertzen ari diren herrialdeen ekonomiaren moteltzeak eragin kaltegarriak izan ditzakeela mundu osoan eta, beraz, baita Nafarroan ere.

Nafarroako Gobernuaren aurreikuspenak bat datoz beste ekonomia-erakunde batzuk egin dituztenekin. Egiaz, aipatu %1,5eko hazkunde-aurreikuspena Laboral Kutxak, Hispalinkek eta BBVak egindako zenbatespenen batezbestekoa da (erakunde horien zenbatespenak dira, hurrenez hurren, %1,2, %1,3 eta %1,8). Azken bi erakunde horien arabera, 2015ean Nafarroako ekonomia %2,3 eta %2,5 haziko da (hurrenez hurren).

### Bilakaera sektore ekonomikoen arabera

Esan bezala, lehen sei hilekoko joera ona izan da eta, lehendakariordeak jakinarazi duenaren arabera, ez da unean unekoa izan, aitzitik: Foru Komunitateko ekoizpen-sektore guztietan gertatu da.

Industriak egin du gora gehien, salmentak %7 igo baitira; igoera hori estatuko bigarrena da (Murtziako da lehendabizikoa), Espainiako



Ekonomia-adierazleen grafikoa.

batezbestekoa baino (%0,8) askoz handiagoa. Industria-ekoizpenaren adierazlea ere asko igo da, %6,4 hain zuzen ere, estatuko %1,9ko batezbestekoa baino gehiago.

Zerbitzuen sektoreko datuak ere onak izan dira: salmentek %0,9 egin dute gora, estatuko %0,1eko batezbestekoa baino gehiago. Higiezin merkatuak, gainera, hobera egin du, hipotekek %8,2 egin baitute gora, Espainian %17 behera egin duten bitartean.

Merkataritza-balantzaren adierazlea ere hobetu egin da. Zehazki, Nafarroako merkataritza-superabita %10,1 igo da lehen seihilekoan, esportazioek %9,8 egin baitute gora; esportazioek, gainera, Foru Komunitatearen ondasun-inportazioaren hazkundera orekatu du.

Lehendakariordeak esan duenez, beraz, hazkunderari barne- zein kanpo-eskariek eusten diote, eta egoera Espainiakoa baino hobea da, estatuan merkataritza-defizitak %104 egin baitu gora 2013tik.

Nafarroako ekonomiaren bilakaeraren ondorioz, neurri handi batean, langabeen kopurua %9 jaitsi da. Hala ere, lehendakariordeak nabarmendu du langabezia dela Nafarroako arazorik "larriena". Alde horretatik, zenbait adierazle makroekonomikoren hobetzeak langabezia-tasa jaitea eragingo duenaren ustea daukela esan du.